MIKEL
ETXABURU
hodeiak zapatetan

Hodeiak zapatetan

Mikel Etxaburu

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2014 Mikel Etxaburu
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2014ko apirila
Edizio hau: 2014ko apirila

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Gure ametsak zirkulu txikiak dira,
haurrek egiten dituzten
xaboi puxpuluen modukoak,
hauskor eta arinak,
putz egin eta desagertzen direnak.
Hatz puntarekin ukitu orduko
mila malkotan lehertzen diren
ametsak dira gureak,
xaboi puxpuluen modukoak,
izar eta airezkoak.

OROITZAK

ORAINDIK

Amets bakoitzean itxaroten zaitut oraindik,
ezpainetan geratutako tanta bakartietan,
ahoan hondoratu zaizkidan begietan.
Konturatu zara?, marinelaren maitasuna da gurea:
musu eman eta urrun joaten dena,
azken olatuaren antzekoa,
zer harea laztanduko duen aukeratu ezin duena.
Amets bakoitzean itxaroten zaitut oraindik,
hareak olatuari tanta gazi bat ostuko dion
esperantzaz.
Itxaroten zaitut oraindik gure begietako itsasoetan.

UDAZKEN BERBAK

Ia inork ez ditu irakurtzen oin-oharrak.
Udazken berbak dira gure bakardadeak.
Urrun entzuten nauzu, nire ahotsak ez zaitu ukitzen.
Gutunen letra txikira behartu gaituzte.

Badakit nahiago dituzula letra borobil handiak,
haietan arinago antzematen dira-eta sekretuak;
baina letra txikira kondenatu gaituzte, isil-gordean.

Oin-orriotako bakardadean eraiki dugu
geure errepublika, arnasa geldoan.
Armiarma hari mehe batek ozta-ozta
zintzilik eusten die nire begiei, zuganako bidean*

*Egon lasai, maitea.
Joan dira afaltzera zelatariak.
Ez ditu kukuak berriz deituko
lerro hauek zure begietan lo hartu arte.

BELDURREN ARABERA

Gure esperantzen arabera agintzen dugu
eta gure beldurren arabera bete agindutakoa.
Ausarta delako gure esperantza,
ausartagoak ordea gure beldur eta nekeak.

...haizea dugu amets
eta putz egiten dugu,
leihoak ditugu hurbil
eta aulkiak bilatzen ditugu...

Ausartagoak direlako nekeak esperantzak baino,
gure esperantzaren arabera agintzen dugu
eta gure beldurren arabera bete agindutakoa.

BILTZEN DITUT

Galdegin zenidan
batzen gaituen haizearen koloreaz,
zure fusiletan belauniko dauden
hostoen jatorriaz,
zu eroan aurretik elkarri emandako
besarkadaren orbainaz.

Horregatik biltzen dut orbeletan
elkar ikusi ez dugun udazken bakoitza.
Eta biltzen ditut euri koloreko haizeak
elkarri emandako besarkaden usainetan.
Joandako antzaren hegoak, hosto eroriak eta
aberriak
biltzen ditut fusil isiletan,
noizbait erantzunak aurkituko ditudalakoan.

HOTZEZ JANTZITA

Hotzez jantzita
nire barruko desertuetara
abiatu naiz ur bila.

Lurrera erori diren hodeiak
sartu zaizkit zapatetan.
Harkaitz-zuloa estaltzen duen hondarkia
gorde dut galtzerdietan.

Zapatak beti itzultzen dira etxeko sukaldera.

Hotzez jantzita
zure begietara
abiatu naiz arnas bila.

Narrasean igarotako muinoak
gogoratuko al ditut luzaroan?
Bidean ito ditudan ametsok
gordeko ote dituzu begietan?

Lainoek zure oskoletik edaten dute.

Hodeiak zapatetan
hondarra azalean
noizbait itzuliko naiz
zure itsasbazterrera.

JADANIK

Nire eskuak jadanik euri-langarrezkoak dira
eta goroldio zurizkoak nire kostaldeak.

Paparrean eskegi nahi nituzke
iraultzetako bandera gorriak,
baina ez dut paparrik
hainbeste odolentzat.

Begietan atseden hartzen duen
hareari putz egin nahi nioke,
baina ez dut itsasorik
hainbeste deserturentzat.

Nire ametsak jadanik burdinazkoak dira
eta harlanduzkoak nire askatasunak.

LUR BUSTIRIK EZ

Euria egin zuen atzo
baina ez zen lurra busti.
Negar egin dugu gaur
baina ez dugu barkamenik eskatu.

Malkoek ez dute
barkamenik eskatzen.
Euri guztiek ez dituzte
errekak sortzen.
Malkoek ez dute
barkamenik behar.
Euri guztiek ez dituzte
harriak leuntzen.
Malkoek ez dute
barkamenik garbitzen.

Euria egin zuen.
Negar egin dugu.

Lur bustirik ez.

SUSTRAIAK

Eta... sustraiak hazi zaizkit zainetan
harrian zelai leunak zabaltzeko.
Sustraiak sortu zaizkit eskuetan
zure enborrari sendo eusteko.
Harriak gotortu zaizkit begietan
azalari lurralde bat eskaintzeko.
Eta... sustraiak hasi zaizkit malkoetan
zu bertan gordetzeko.

ERROTARRIAN

Putzuan sikatu da
harria higatu duen ura.
Berarekin lurrundu dira
ebakiondoak eta zauriak.
Errotarrian txikitu dira
giltzak eta sarrailak.

ITOGINA

Banaka-banaka
itogina bezala
erori zitzaizkidan lurrera begiak,
batak besteari bultza egin gabe
galdu zitzaizkidan euritan muxuak,
banaka-banaka
isuri nituen malkoen bila.

Banaka-banaka
erori zitzaizkidan lurrera eskuak,
taupadak zainetan,
batak besteari bultza egin gabe
bilatu zituzten zure aintzirak,
negar egin ez diren malkoak
banaka-banaka,
ukitu nahi nuen azalaren bila.

Izotzezko desertuetara abiatu nintzen
aintzira berrien bila,
itogina bezala,
banaka-banaka
gaztainentzako malko bila.

Begiak erori zaizkit lurrera
zure bila

HANTXE

igerian baino
iritsi ezin diren irletan
lo gaudenean baino
ikusi ezin diren herrialde galduetan
bilatuko zaitut
hondartza ahaztuetan
hantxe biok elkartzeko
gure alabaren ezpainetan

EZ IRITSI BERANDU

... eta bitartean,
zure zain jarraitzen dut.

Lau haizeetara,
ez-herritik deserrira,
eurietatik oskoletara.

Lau haizeetara,
zauden lekura,
birikietatik eztarrietara.

Lau haizeetara,
zauden itsasora...

... bazkaria prest dago,
gaur tximeletak jango ditugu,
ez iritsi berandu.

OHITURA

haizea
libre dabil
eta gu
haizea
pasatzen ikusten
ohitu gara

HOBE NUKE

Idazteko adorerik ez dagoenean
oroitu egin behar dela dio Eeva Kiplik.

Baina oroitzea baldin bada
idazteko adorea kentzen dizuna,
zer egin?

Hobe nuke berehala ahantzi.

Oinez jarraitzeko indarrik ez dagoenean
hegan egin behar dela dio Eeva Kiplik.

Baina hegan egitea baldin bada
izutzen zaituena,
zer egin?

Hobe nuke berehala hegan hasi.

BADAGO

Zure begien euritean
badago nahikoa ur
arrainentzat,
kostaldea kaioentzat,
eta harria... guretzat.

Zure eurizko begietan
badago nahikoa ur
itsasoan galdutakoentzat,
belardiak haizeentzat,
eta lurra... guretzat.

Gure begietako kartzeletan
badago nahikoa ur
erreka berrientzat.

ZENBATETAN?

Gogoratzen al dituzu
batera geundeneko putzadak?,
ufada indarge baina xamur haiek?,
olatuak azalean?;
hasiera-hasierako brixak,
arinak...

Gogoratzen?
zenbatetan uste izan dugun
astunegiak direla errota-besoak
mugiarazteko.

Oroitzen?
izerdiak eta besarkadak,
hortzak eta laztanak,
agurrak eta diosalak...
Zenbatetan sinetsarazi diguten
ez dagoela haizerik
hautsa kantoitik mugiaraziko duenik.

Zenbatetan
putz egin behar izan dugun
bakardadean
haize erroten kontra...

Zenbatetan
hartu gaituen estu arnasak,
birikietara iritsi ezin eta
hasperen hari mehe bat atera digun arte...

Oroitzen zenbatetan
ez dituzun ikusi gereziondoak loratzen?

SORGIN-BELARRA

Ikasi dugu
negar malkoetan belar usainaz loak hartzen,
kresalaren zipriztinetan begien oroitzak sikatzen,
eta egur erorian hostoak margotzen
haizetik haizera, enborretik enborrera.

Udazkeneko sorgin-belarra da gure herria,
haize ufada bakoitzak haziak deserriratu dituena.

Haiek ere badakite
sorgin-belar batek
hamaika hosto dituela,
eta bi sorgin-belarrek
hogei eta bi amets,
eta hogeita bi sorgin-belarrek
milaka aukera...
Haizeek ere badakite
milaka sorgin-belar behar direla
egur erorian hostoak margotzeko

ZER DA?

Zer da, baina,
zaurietan gordetzen duzuna?

Ez dira lurrak edo errautsak,
ez dira balak eta lubakiak.

Udaberriko lehen sagarrak dira.

Zer da, baina,
ukabiletan itotzen duzuna?

Ez dira zeruak edo beldurrak,
ez dira kala-pitxiak eta beldarrak.

Ihes egin aurreko nire azken begiak dira.

Ez zeruak ez beldarrak.
ihes egin aurreko zure azken muxuak dira.

AHAZTU EGIN DUTE

Euri kolorekoa da
gure haizea,
elkarri emandako
besarkadaren modukoa:

bustia eta zauria.

Orbelek ahaztu egin dute
zein zuhaitzetatik erori diren,
ezpainetatik irrist egin duen
aberriaren moduan:

euria eta erreka.

ZIMURRAK

Zimurrak hasi zaizkit azalean
eta errekak zimurretan.
Falta zara, gaur ere ez zara etorri.

Egurrezko aulkian eserita
jarraitzen dut, zuri begira,
eroan zintuzteneko oroitzak gorde nahirik.

Hementxe nago, zuri begira,
sukaldeko leihora okertuta,
eroan zintuzteneko azken fereka interrogatu nahirik.

Gaur ere falta zara egurrezko aulkian.
Eta niri zimurrak hasi zaizkit azalean,
errekak zimurretan.

GORDE DUT

Udazken usaina zeukan
zure ileak.

Betileetan gordetzen zenituen
hosto erorien balantzak
eta
hondartzara iritsi nahi zuten
naufragioen hondakinak.

Udazken usaina zeukan
zure ileak.

Bularretan babesten zenituen
zuhaitz biluziaren ametsak
eta
zutitu nahi zukeen
azken naufragoaren abestiak.

Udazken usaina zeukan
zure ileak.

Eta zure ordez
kristalezko ontzian
gorde dut
naufragoaren argazki bustia.

AZTARNAK

Lubaki sakonenean gordeko ditut eskuak
inoiz gehiago malkorik ez sikatzeko,
usapalak elurretan utzitako aztarna arinenak ere
orbain bihurtzeko zure ziegako hormetan.

ZIMURRAK LEUNTZEN

Ez,
ez dut gehiago zain egon nahi.
Zimurrak leuntzen saiatu naiz
azalak eztanda egin didan arte.
Azazkalak moztu ditut
haragiak odola isuri duen arte.

Ez,
ez dut gehiago harri izan nahi.
Mugarriei galdegin diet
huntz-hosto bihurtu nauten arte.
Errekak besarkatu ditut
harri-koskor egin nauten arte.

Ez,
ez naiz gehiago zain egongo;
azal
azazkal
zimur
ez naiz gehiago haitz izango,
huntz
hauts
erreka;
ur naiz.

ZUREGANA

ez dut atzean uberarik
ez aurrean artizarrik
zuregana hurbilduko nauenik

MEZU SEKRETUA

Atzapar puntarekin
mezu sekretua
idatzi dut karezko paretan,
haizeek eroan dezaten
zu zauden lekura letraz letra.

Harainoko bidean ordea
ahuldu egiten dira haizeak
eta heltzen zaizkizunerako
indarge putz egiten dute
neguko eguzki apalak bezala.

Horregatik idatziko dut mezu sekretua
irinezko letrekin, ondoren,
Gino Bartaliren bizikleta-koadroan gordetzeko
zuretzako udazkenak eta sagar eroriak.

Haizezko pedalei eraginez oharkabean
igaroko ditut Toscanako eta Umbriako
bide klandestinoak, erraz pasatuko ditut
sekretu bila dabiltzan zelatarien kontrolak.

Eta ez ahaztu sekulan
haizeak zuregana bare iritsiko diren arren
Gino Bartaliren bizikleta-koadroan doazkizula
nire muxuen ezpainak,
mezu sekretuak.

ZURE NEGUAN

Euria da nire ahotsa, zure neguan tantaka.
Ura izotz bihurtu da gure zaurietan.
Ahulegia, poetaren eguzkia bezala.

ATEARI BEGIRA

Göstan Agrenek bazekien
ihes egiteko aukera dela
inork galdu nahi ez duen askatasuna.
Zabalik dauden ateei begira geratu,
itxi arte aukerak
eta galdu arte bideak.

Zuk badakizu
ate batzuk ez direla irekita egoteko asmatu,
haietan ez dagoela giltzentzako sarrailarik,
maratilarik atea zarratu edo zabaltzeko.

Göstan Agrenek ez zekien
leiho guztiek ez dutela hotzetik babesten.

Zuk badakizu
ate denek ez dutela kalera ematen...

GALDU EZ DUGUNA

Zaila da keak daroana ikustea,
amestutako aberriaren azken hasperenaren moduan,
lurruna bezain hilkorra,
zaila delako haizearen sekretuak
kezko zapata kutxetan gordetzea.

Non ikasten da agurrak jakako patriketan babesten?
Zergatik ez ote digute erakutsi
zein diren antzaren beldurrak
eta non dagoen esperantzaren aberria?

Zer?
Ze ilargi gorde dugu izarapean...
Ze itsaso arrain-ontzian...
Zer da irabazi duguna...

Harria eta hazia,
galdu ez duguna.

HAINBESTETAN?

Zein ez da hil,
pixka bat bada ere, bestearen begietan.
Zein ez da ito,
pixka bat bada ere, norberaren arantzetan.

Badakit negar egin duzula gaur ere;
busti dira kamisetak,
hondoratu dira begiak
gure askatasunetan.

Hainbestetan hil al ditugu?
Hainbestetan hil al gaituzte?

Begiak eta askatasunak aurkitzen ditudanean
intxaur-azal txiki baten barruan
itzuliko dizkizut hildakoen kamiseta bustiak,
nire itsasoaren berri izan dezaten zure harkaitzek.

Ez baitakit zein den libreagoa,
malkoa ala begia;
ez baitakit zein den malkoagoa,
libre nahi lukeenaren euria ala
hildakoen kamiseta bustiak.

Hainbestetan hil al ditugu?
Hainbestetan hil al gaituzte?

Zein ez da ito,
pixka bat bada ere, norberaren arantzetan?

ESAN

Aditu dut
kezko ilargian bizi zarela
eta gurmazko iraultzen errautsak
gordetzen dituzula beso artean.

Berdin dit
zer hormak isolatzen zaituen
eta zer ilargitan itoko zaren
marea igotzen denean.

Ez dit axola
zer ziegatan egiten duzun amets.
Nik entzun egin nahi zaitut,
hori besterik ez.

Esan,
esan behin eta berriz,
gorren belarriek eztanda egin arte,
bihar etorriko zarela.

Esan,
esan berriro,
bihar itzuliko zarela
sagarrondora joateko.

Esan,
Bihar batuko garela
giltzez itxiko ez den etxean.

EZ ZAUDE

Erori dira
sagarrak.
Usteldu dira
lorategian.
Eta zu
ez zaude.

Loratu dira
gereziondoak.
Haizeak gorde ditu
kutxetan.
Eta zu
ez zaude.

Ihartu dira
hostoak.
Irentsi gaitu
lurrak.
Eta zu
ez zaude.

... eta nik ze zuhaitzetatik
zintzilikatuko ditut malkoak?

KRISTAL BLINDATUA

Neguko iluntzean
gaztaina azal erreak
pilatu ditut periodiko zaharrean,
eskuak berotzeko edo
goiz epelagoak oroitzeko.

Lore guztiek gordetzen dute
sekretu bitxiren bat,
eta berdin neguko iluntzeek
gaztaina azal erre bat...
hantxe biok elkartzeko.

Begiak kendu eta
gaztaina azal beroetan bilduko ditut
loak hartu aurretik.

Bihar goizaldean
ezpainak pausatuko ditut
zure begien kristal blindatuetan.

OSKOLA

LETRAK

Badiostazu
nahiago ditudala
letra borobil eta
tamaina handikoak.
Ez ordea
haietan sekretuak
arinago antzematen direlako,
jadanik sekretuak ere
ebatsi dizkigutelako baizik.

Badiostazu
letra txikian sentitzera
behartu gaituztela,
baina hemen dena egiten da
handi eta borobil,
astun eta sendo.
Sekretuak zelatatzen dizkigute
ondoren kortxozko panelean
zintzilikatzeko.

Aspaldi ahaztua dut
nola sentitzen den letra txikian,
hemen dena sentitzen baita
handi eta borobil,
astun eta sendo.
Halaxe idatziko dizut nik ere,
dakidan era bakarrean,
sekretuak ostu dizkioten
magoaren moduan,
agerian, baldar, babesik gabe.

HARAINDI

Hemen basazkoa da denbora,
barakuiluen ibiliaren modukoa.
Hemen miopeak gara denok,
errepublika berririk
eraikitzeko asmorik gabe nabil,
ni ez naiz Robinson Crusoe
eta burusoilegia naiz Ostiral izateko.
Hemen ez naiz erreboltaz oldartzen
gauero atea ixten didaten polizien kontra,
nahiago dut koldar jokatzen jarraitu,
nahiago dut begi bustiak eskuetan bildu eta
poltsan sartu didazun trikotarekin itsasoa sikatu,
barakuiluek paretak laztantzen dituzten bezala.
Hemen gatibatuta gauzkaten paretez haraindi
jaurtitzen ditugu paperezko hegazkin zuriak,
mailuak dunbaka, betazal hertsietan lur-hartzeko.
Hemen gatibu gauzkaten sarrailen zuloetatik
arnas hartzen jarraitzeko.

ZU BERRIRO

Gauak dena berdintzen duenean
askeago sentitzen naiz.
Horregatik nahi nuke
ilberriko gauetan bizi,
ikusteko itsuek ikusten duten moduan,
atseden hartzeko gure haurra lo dagoen ohe berean,
elkar maite dutenek egiten duten eran
nire beso artean
zu berriro biltzeko
gauaren babesean.

Gauak dena berdintzen duenean
askeago sentitzen naiz.
Horregatik maite ditut
kandelen su dardartiak,
jakin dezazun hortxe nagoela
zure begien aurrean,
harresiaren alderen batean,
zementuz egindako oskolaren zainetan,
zure altzoan,
gauaren ebakiondoan.

Gauak dena berdintzen duenean
askeago sentitzen naiz.
Horregatik astinduko ditut
armiarma-sarean itsatsi zaizkidan oroitza meheak,
elkar maite dutenek egiten duten moduan
nire besoen artean
zu berriro biltzeko
harresirik gabeko ilargitan,
herri askearen izarretan.

IRRATIAN

Irratia piztu dut
gauero bezala.
Brasilgo agintariak
Antonio de Carli apaizaren
bila dabiltzala entzun dut.

Elkarrizketak egin dizkiete
hura ezagutzen zutenei.
Marinelaren maitasunaren
modukoa zen
esan du batek,
musu eman eta
joan egiten den horietakoa.

Gure arteko
maitasunaren antzekoa.
Gogoratzen?
Azken olatua:
orkatilak laztandu eta berriro
itsasora bueltatzen dena.

Orain beste ahots batek
xuxurla egin du irratian:
Maitemindu egin zen
koruko neska
kantuan entzun zuenean.

Gaitz txar batek
koruko neska eroan zuenetik
de Carli apaizak
gauza arraroak egiten zituela
kontatu dute eliztarrek:
Herriko gozoki dendan
puxika mordoa erosi zuen,
batez ere handiak zirenak
eta kolore biziak zituztenak...
“Eta mila puxika puztutakoan”
esaten omen zuen de Carli apaizak,
“otzara handi bati lotu,
hantxe barruan sartu eta
koruko neskaren bila
joango naiz ilargira;
lurrean hildakoak
hantxe egoten direlako, ilargian,
zeruko atea noiz zabalduko zain”...

Irratia itzali eta
gora begiratu dut.
Ilargira.
Baina ziegetan
ez dago ilargirik,
puxikak koloretakoak bilatu ditut,
baina ziegetan
ez dago puxikentzako kolorerik.

Eta zeruko atea zabaldu ordez
zelatariaren ahotsa entzun dut
Recuento! dei egiten.

ZEIN EDER

Agian edozerk balio du
harri kozkor batek baino gehiago.
Baina zein eder diren harri kozkorrak
hondar ale bihurturik noizbait hareatza izateko.

ITZALETAN

Eguzkiak beste lurralde batzuk berotzen ditu.
Ilargiak nahiago du itzaletan gordeta bizi.
Kantoietan ez dago denontzako lekurik.
Hemen linternek baino ez dute argi egiten.

Zer egin ote dugu txarto...
Deserrietan sinetsi dugulako
al gaude gure herritik hain urrun.
Hain itsu, edozein argiren gerizpetik hain hurbil.
Haizeek ekarritako doinuei kasu egin diegulako
al gaude gure enbatetatik hain hurbil.
Hain nekatuta, adiskideen babesetik hain urrun.

Haizea hodei astunak garraiatzen ari da.
Ilargiak nahiago du itzaletan gordeta bizi.
Eguzkiak beste lurralde batzuk berotzen ditu.
Olatuek bueltako bidea irentsi dute,
hain gaude urrun, hain itsu...
Kantoietan ez dago denontzako lekurik.

LASTER

Bide bazterrik ez duen zelaian ibili.
Ur ertzik ez duen errekan murgildu.
Kostalderik ez duen itsasoan nabigatu.
Urrun honetatik zure hurbilera igaro.

HOSTOAK

Udazkeneko hosto gara hemen gaudenok.
Enborrera lotzen gaituzten besoak
askatzen ari zaizkigu labainkor.
Lurrak deitzen digu haizearen doinuz,
hortxe daude gure iragana eta etorkizuna.
Eskuak zabaltzen ditugu
begirada bat harrapatzeko,
maitasun keinu bati esker irri egiteko,
besarkatu nahi nukeen
alabaren betazalak hatz puntekin zabaltzeko.

URETAN

Harri bat ezarri uretan.
Eta beste harri bat gero.
Eta bizitza bat, eta bi,
eta hogei amets gehiago...
Ezarri bat bestearen ondoren
uretan, erreka zeharkatzeko.
Etxerako bidean, ez dadin beste inor ito.

BILUZIK

Biluzik sartuko naiz itsasoan
nire zaurietan kresala gordetzeko,
maite ditudanak
olatu harroen agurretan oroitzeko,
maite ez ditudanak
apar zaporeko adiotan ahazteko.
Biluzik sartuko naiz itsasoan
nire zaurietan zu maitatzeko.

BELDUR

Itsasoa bare dagoenean
edonork izan nahi du kapitain,
baina behin naufragatuz gero
beti izango da itsasoaren beldur.

Horregatik ez naiz kapitain,
bi bider naufragatu ez dezadan.
Horregatik ez daukat ontzirik,
bi bider ito ez nadin.
Horregatik ikaratzen naiz
ukabilak harrotzen dituen enbatarekin.

ENTZUTEN DITUT HARRIAK

Bota ditugun harriak
erortzen entzun ditut.
Gor geratu naizen arte
zenbatu ditut zeruak eta zauriak.
Ezagutu naiz zure gabean;
pixka bat gehiago itzali naiz
flexo gorriaren goiz-albetan,
leihoa zeharkatu ezin duen ilunsentietan
erortzen entzuten ditut
bota ditugun harriak

AZALA ZABALIK

Errekak daroan harria naiz euri egunetan.
Azala zabalik,
bideak eragindako orbanetan ezagutuko nauzu.

Berunezko izara naiz haize egunetan.
Azala zabalik,
bidean isuritako malkoetan aurkituko nauzu.

Argira doan zomorroa naiz egun hotzetan.
Azala zabalik,
bide bihurtu diren haragi kiskalietan oroituko
nauzu,
azal-bizian.

ETA ORAIN ZER?

Igelei hankak kendu dizkiegu
ez dezaten ilargira jauzi egin.
Zuhaitzei besoak inausi dizkiegu
ez daitezen sustraietatik aldendu.
Eta orain zer?

Orain harrietara lotuko ditugu
kendutako hankak eta inausitako besoak,
amestutako argiak eta ehortzitako sustraiak,
zuhaitzetan ilbete berriak loratu arte,
igelak erreketan berriz kantuan hasi arte.

UDAZKENEKO EURIAK

Zein leiho aukeratu duzu negar egiteko
eta azken maite zaitut hura oroitzeko?

Edo egurrezko aulki txikian
eserita zaude balkoian
apirilean sagarrak bezala
zein maiatzetan bueltatuko ote naizen
zeure buruari galdetzen?

Udazkeneko euriak
nire esku-ahurretako aintziretan batzen ari naiz
udaberriz udaberri,
etxek aurreko gereziondoa,
noizbait, ureztatzeko.

ARRAIN GORRIZKO HODEIAK

Arrain gorriz betetako hodeiak ikusi ditugu.
Gizendu ahala, euriarekin batera
erreketara eroriko dira arrainetako batzuk.
Besteek ez dute pentsamendu batek adina pisu
eta hodeietan geratuko dira betiko:
badelako euri tanta bat baino gutxiago
pisatzen duen arrain gorririk.

Arrain gorriz betetako hodeiak ikusi orduko
teilatuetan biltzeko ohitura daukagu,
erreketara erori ez diren arrain gorriak
salbu gorde ditzagun kristalezko ontzietan.
Eta noizean behin hodeietara ere igotzen gara
pentsamendu batek adina pisu ez duten
arrain gorrien ondora, hemendik ihesean.

Gutako batzuk, hodei gurietan gizendu ahala,
euriarekin batera eroriko gara erreketara.
Eta beste batzuk hodeietan geratuko dira betiko:
badelako euri tanta bat baino gehiago
pisatzen ez duen aberririk.

EZPAINETAN LO

Amaren isiltasunak
ur-azala urratzen duenean bezala,
olatuak erauzi nahi nituzke ahotik
harkaitzen kontra botatzeko.

Ezpainetan lo dagoen ur malkoari
haginka kenduko dizkiot begiak,
kaioek karranka egin eta
amaren arnasak
haizearekin bat egin arte.

Badakizu gaur ere
ez dudala etxean lo egingo
eta hala eta guztiz ere
manta elektrikoa topera ipini didazu.

KLARABOIA

Atea jotzen dutenean
klaraboia bilatzen dut.

Aterik jotzen ez dutenean
klaraboiak amesten ditut.

Ahantzi ditzadan deserriak
behingoagatik

ateak zabaldu eta
klaraboietan kantuak idazteko.

EGUNERO DEITU

Ezin badizuet hots egin,
egon lasai;
nire irlatxoan geratuko naiz
geldi-geldirik,
harik eta funtzionarioak
pareta ondora
arrastaka aterako nauen arte.

Ezin badizuet hots egin,
egon lasai;
intziri egingo dizuet
nire irlatxoaren burdinazko bihotzetik.
Egunero deitu ez arren
badakizue-eta
egunero besarkatu nahi izango zaituztedala.

ZAPATUA DA GAUR

larregizko pisua dute ziegetako ateek,
horregatik zarratzen dira
hain astiro eta hain baldar

Bisita eguna da gaur.
Eta horrelakoetan
inoiz baino burdinago
izaten dira ateak,
beti sekulako zarratuta egoteko
hautua egina balute bezala.
Ziegako litera gainean agonduta,
hona ekarriko zaituen
furgonetan imajinatu zaitut.

eta leihoetako ganduan
zure begiak bilatu ditudanean
hantxe aurkitu ditut
nire beldurrak eta ametsak,
hantxe aurkitu zaitut
zeu ere, honanzko bidean,

irribarre behartua
maitasun keinu bihurtzeko
gai izango ote zaren
zeure buruari galdez

Erabakita zatoz
furgonetako kristaletan
lozorroan geratu diren
euri tantak biltzea dela hoberena,
zure begietatik barruragoko
bihotzaren putzuan gorderik
igeri egin dezagun luzaroan.

eta hitzen ordez
bidaian bildutako
tanta horiek
egingo digute kantu

Bisita eguna da gaur.
Eta horrelakoetan
inoiz baino biziago
egoten naiz, urduriago.
Hoztuta neguan,
udagoieneko

orbelarekin ametsetan;
egosita udan,
udaleheneko
euri tantak zenbatzen.

Ziegako litera gainean agonduta,
errepidean imajinatu zaitut,
txingor-euritan, haize erauntsietan,
ametsen gerizpean elkar topan:
zu nire bila eta ni zure zain.
Eskutik helduta akaso gaur
itsasoa ikustera eroango nauzulakoan.

eta biluzik sartuko gara uretan
elkarren zauriak osatzera

Bisita eguna da gaur.
Eta horrelakoetan
inoiz baino burdinago
izango dira agurrak ere,
larregizko pisua dutelako
ziegetako ateek bezainbat.
Itxi ditzadan begiak, hortaz,
zuk honanzko bidean

bilduko duzun euripera
murgil egingo dugun esperoan.

Zelatariak ateak
zabaldu ditu eta
banoa zure bila,
hain urduri eta hain bizi
izurde gazte bat bezala.

eta biluzik igeri egingo dugulakoan
lepotik zintzilik daroat toalla

Bisita eguna da gaur.
Hortxe zaude zu, zutik,
telefonoa eskuan eta
udagoiena soinean.
Hementxe nago ni, isilik,
udaleheneko zure begien
zazpi itsasoetatik edan guran.
Kristal blindatuaren kontra
elkartu dira gu bion eskuak
eta olatu zipriztinek laztandu dituzte
gure irribarreak eta lotsak.

ilargiaren alde ezkutuan
beti sekulako gordeko ditut
zure euriak eta laztanak

ZURE TOLESTUREN USAINAK

Pozarren esnatzen naiz larunbat goizetan,
badakidalako eguerdiko poltsan
ziega estua irla epel bihurtzeko moduko
oihal koloretsuak topatuko ditudala
zure tolesturen usainez josiak.

Gure etxea eta zu oihaletan:
ihes egiteko aukera txiki bat da
inork galdu nahi ez duen askatasuna.
Eta zure tolesturen usainak dira
nire naufragioaren hondartzak.

Pozaren lurrinaz honatago, ordea,
neurri zorrotzak dauzkat patioan:
hogeita bederatzi pauso zabal,
hogeita hamaika pauso luze.

Berba naroetatik honatago
bakardadearen itzala dabilkit
berrehun buelta eman bitartean:
ehun alde batera, ehun bestera

Pozarren esnatzen naiz larunbat goizetan
badakidalako eguerdiko poltsa dela
hamabostero eskaintzen didazun
Ihes egiteko aukera txikia.

Arotzek erabaki dute aterik sekula gehiago ez dutela egingo.

GEREZI GORRIAK

GEREZI GORRIAK

Oskolean kiribildu naiz.
Askatasunetik babesteko premia nuen.
Elkarri esandako berbekin batera
gorde naiz neu ere
gutunazalen barruan,
kodifikatutako mezuetan,
presoaren gogoa bezala
isil gordean.
Oskolean kiribildu naiz.
Eta elkarri esandako berbak
gutunen hormetan geratu dira preso,
zaurien kanpalekuan.

Badiotsut
zirkuluetan ibili naizela oinez,
geroz eta zirkulu itxiagoetan
neure buruaren kontra egin eta
lurrera erori naizen arte.
Badiotsut
urratu ditudan pausoek ez daukatela
kartzelako patioaren neurritik

harago urruntzeko adorerik.
Badiotsut
kartzelara itzuli nahi izan dudala
behin baino gehiagotan,
hango ziegaren txikitasunera,
harresien gerizpera,
zementuan margotutako
arrakaletan ezkutatzera.
Oroiminetik babestu naiz
behar baino gehiagotan,
eta badiotsut
maiteago izan dudala
ziegako pareten artean
amestu nuen herria.

Zuk ikusi nauzu erortzen eta makurtzen,
behin eta berriz zirkuluaren puntu berean.
Zuk ikusi nauzu, narras,
barakuiluen labirintoetan barrena
etxera bueltatuko nauen maratilaren bila.
Zuk ikusi nauzu hormaren kontra,
txoriari kaiola zabaldu diotenean bezala.

Baina ez dago

labirintoan barrena gidatuko nauen
ez seinalerik ez itsu-makilarik.
Ez dago
labirintoan atseden hartzeko
ez kostalderik ez tabernarik.
Doi-doi dago
hari batentzako lain leku,
indarge nagoenetan
hortzekin eusteko itzulerako bideari,
zalantzarik gabe oratzeko zure eskuari.

Aitortu behar dizut
gaur goizera arte ez ditudala
kartzelara bidali zenizkidan
gutunak berriz irakurri.
Karpeta urdinean giltzapetu nituen,
hautsa biltzeko apropos atondutako apalean.
Eta gaur goizean gure oroitzak
eskuetan hartu ditudanean, ikaraz,
oskoletik oraindik, atzamar puntekin
arropa zintzilikatzen dugunean bezala,
ohartu naiz bustita jarraitzen zutela
funtzionarioak eman zizkidanean bezala.
Orriz orri denak destolestu eta

etxe aurreko gereziondoan zintzilikatu ditut
eguzkiaren epeletan sikatu daitezen.

Ailegatu naiz kostaldera. Bazen garaia!
Agian laguntza apur bat beharko dut
itsasoari zelan begiratzen zaion ikasteko,
hain da zabala eta mugarik gabea...
Laguntza apur bat beharko dut
ikas dezadan ateei bultza egiten
inork zabaltzeko zain egon gabe.

Orain badakizu
leiho-ohola goizetan bezala
zabaldu dizkiedala azalak zure gutunei,
kresal giroan arnas har dezaten
bertan atxilo egon izan diren eleek.
Orain badakizu itzuli naizela.
Hementxe nago,
gure etxe aurrean,
arbolaren gerizpean,
sorterriaren magalean.
Gaurtik aurrera
gerezi gorriak
jango ditugu elkarrekin.